

Pribatuen Iragarkiak

EUSKO TRENBIDEAK, SA

IRAGARKIA, Sociedad Pública Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, SA, kide bakarreko sozietaterako finantza-maileguaren zerbitzurako lehiaketa prozedura hitzartuaren bidez kontratatzeari buruzkoa. 19767

CIUDAD JARDÍN INSTITUTO TEKNIKO BEREZIA

IRAGARKIA, bigarren mailako lanbide heziketako (LH II) titulu bat galdu dela argitara ematen duena. Adarra: Administrazioa. Espezialitatea: Administrazioa. 19769

Xedapen Orokorrak

OSASUN SAILA

5572

285/2005 DEKRETUA, urriaren 11koa, tatuajeak, mikropigmentazioa, gorputz zulatzea («piercing») eta antzeko beste teknika batzuk gauzatzen dituzten establezimenduek bete beharreko baldintza tekniko eta arau higieniko-sanitarioei dagokiena.

Giza gorputzean tatuajeak eta mikropigmentazioak egitea edota larruazala eta muki-mintzak zulatuz apaingarri metalikoak ipintzea («Piercing» izenaz ezagutzen den teknika) gure gizartean hedapen handia lortu duten teknikak dira eta asko ugaritu dira horrelakoak gauzatzen dituzten establezimenduak.

Jarduera horiek garatzerakoan, arrisku bizia dago odolaren bidez kutsatzen diren gaixotasunak harrapatzeko; gainera, gerta liteke praktika horiek pertsona ez sanitarioek eta leku ez sanitarioetan egitea. Horrek guztorrek beharrezko egiten du aipatu establezimenduek eta praktika horiek gauzatzen dituzten pertsonak bete beharreko baldintza teknikoak eta izaera higieniko eta sanitarioko arauak ezartzea. Izan ere, horrela lortuko dugu arrisku hori ahalik eta gehien murriztea eta erabiltzaileen eta toki horietako langileen osasuna babestea.

Anuncios Particulares

FERROCARRILES VASCOS, S.A.

ANUNCIO relativo a la contratación por el procedimiento negociado de concurso de servicio de préstamo financiero para la Sociedad Pública Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, S.A., Sociedad Unipersonal. 19767

INSTITUTO TÉCNICO SINGULAR CIUDAD JARDÍN

ANUNCIO por el que se hace público el extravió del título de formación profesional de segundo grado (F.P.II). Rama: administrativa. Especialidad: administrativa. 19769

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

5572

DECRETO 285/2005, de 11 de octubre, de requisitos técnicos y normas higiénico-sanitarias aplicables a los establecimientos en los que se realicen prácticas de tatuaje, micropigmentación y perforación corporal («piercing») u otras técnicas similares.

La realización en el cuerpo humano de tatuajes, micropigmentaciones y la aplicación de adornos metálicos mediante perforaciones en la piel o mucosas (técnica conocida como «piercing»), son prácticas que han adquirido una considerable difusión en nuestra sociedad, incrementándose el número de establecimientos en donde se practican.

La relación directa entre el desarrollo de estas prácticas y el riesgo de adquirir enfermedades ligadas a la transmisión a través de la sangre, su ejecución por personal no sanitario y en ámbitos no sanitarios, exige, con el fin de minimizar este riesgo y proteger la salud de los usuarios y trabajadores, establecer los requisitos técnicos y las normas de carácter higiénico y sanitario que deben cumplir los establecimientos y las personas que se dedican a la realización de estas prácticas.

Osasuna babesteko helburu honen barruan, Dekretuak arautzen ditu instalazioek, ekipamenduek eta erabiliko diren materialek bete behar dituzten baldintzak, bai eta jarduera gauzatzeko higie-ne-baldintzak, aplikatzaileen formazioa eta erabiltzaileentzako informazioa ere. Hori guztia produktu sanitarioen eta produktu kosmetikoen arloan indarrean dagoen eta aplikatzekoa den araudia konpliztearen kaltetan izan gabe.

Garrantzi berezia ematen zaion baldintzetako bat aplikatzaileen formazioa da, eta horretarako, Dekretuak formazio ikastaro bat gainditzea exijitzen die aplikatzaileei, osasunaren babesari buruzko ezagutza batzuk bereganatu ditzaten, bai beren buruarekiko eta bai erabiltzaileekiko ere. Betebehar honetatik salbuetsiak geratzen dira izaera profesionaleko titulazioen edo prestakuntzen jabe direnak, baldin eta beren curriculumetako edukien artean dekretu honek aurreikusten duen prestakuntzaren arloko gaiak badaude.

Araudi hau apirilaren 25eko 14/1986 Osasuneko Lege Orokorrean eta ekainaren 26ko 8/1997ko Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoan, jasoak dauden aurreikuspenekin lotzen da; aipatu legeek neurri egokiak hartzera behartzen dituzte Administrazio Publikoak, zenbait ondasun eta zerbitzuek kontsumitzaileen osasunerako eta segurtasunerako eragin ditzaketen arriskuak saihesteko.

Dekretuaren arabera, praktika hauek gauzatzen dituzten establezimenduak zabaltzeko ezinbesteko da udal lizentzia edukitzea. Horretarako, eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentu sail bat aipatzen du araudiak. Arauan aipatzen diren aktibitateak aktibitate-lizentzia lortzetik salbuetsizat eman dira, bat baita martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuko III. eranskineko 3.3 atalean aurreikusten direnekin; izan ere, hor ezartzen da Euskadiko Ingurumenaren Baberako, otsailaren 27ko 3/1998 Legean aurreikusten den jarduera lizentzia lortzetik salbuetsiak dauden jardueren zerrenda.

Udal lizentzia eman ahal izateko, halere, aurrena, agintari sanitario eskudunak eginiko txosten bat lortu behar da; txostena kontrakoa bada, loteslea izango da.

Aurreikuspen hauek bateratu egiten dute batetik, Udal Erregimeneko Oinarrien Lege Erregulatzaileak jasotzen duen udal autonomiaren eremua (14/1986 Sanitateko Lege Orokorrarekin eta Euskadiko Antolamendu Sanitarioko 8/1997 Legearekin lotuta), eta bestetik, agintari sanitarioak bermatu behar dituen izaera sanitarioko exigentziak, administrazioak ahalik eta gutxien esku hartzearen printzipioa aintzat hartuta.

Dentro de este objetivo de protección de la salud, el Decreto regula los requisitos que deben tener las instalaciones, sus equipamientos y los materiales a utilizar, las condiciones de higiene en el desarrollo de la actividad, la formación de los aplicadores y la información al usuario. Ello sin perjuicio del cumplimiento de la normativa vigente en materia de productos sanitarios y productos cosméticos en vigor y que le resulte de aplicación.

Especial importancia se da al requisito de formación de los aplicadores, a cuyo efecto el Decreto les impone la obligación de superar un curso de formación que tiene como finalidad la adquisición de conocimientos en materia de protección sanitaria tanto hacia sí mismos como hacia los usuarios. Quedan exentos de esta obligación quienes estén en posesión de titulaciones o formaciones de carácter profesional cuyos currículos incluyan, como parte de su contenido, las materias sobre las que gira la formación que prevé el presente Decreto.

La presente norma entronca con las previsiones que se contienen en la Ley 14/1986, de 25 de abril, General de Sanidad y la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, que obligan a las Administraciones Públicas a adoptar medidas con el fin de evitar los riesgos que para la salud y seguridad de los consumidores pueden provocar determinados bienes y servicios.

El Decreto somete la apertura de establecimientos en los que se realicen estas prácticas a la obtención de la correspondiente licencia municipal. A tal efecto, la norma relaciona una serie de documentos que habrán de acompañar a la solicitud correspondiente. Las actividades a que se refiere la norma se han considerado exentas de la obtención de licencia de actividad al asimilarse a las previstas en el apartado 3.3 del anexo III del Decreto 165/1999, de 9 de marzo, por el que se establece la relación de actividades exentas de la obtención de la licencia de actividad prevista en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

El otorgamiento de la licencia municipal, no obstante, habrá de ir precedido de la emisión por la autoridad sanitaria competente de un informe sanitario, que se prevé con carácter vinculante si fuera desfavorable.

Estas previsiones concilian el ámbito de autonomía municipal que contempla la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, en relación con la Ley 14/1986, General de Sanidad y la Ley 8/1997, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, con las exigencias de orden sanitario que corresponde garantizar a la autoridad sanitaria, dentro del principio de mínima intervención administrativa.

Azkenik, dekretuak udalei esleitzen die jarduera horiek kontrolatu eta ikuskatzeko ardura, Udal Erregimeneke Oinarrien Lege Erregulatzailerari dagokionez, 14/1986 Sanitateko Lege Orokorrak eta Euskadiko Antolamendu Sanitarioko 8/1997 Legeak ematen dieten eskuartze sanitarioko eremuei jarraiki.

Ondorioz, Osasun sailburuak proposaturik, Euskadiko Batzorde Juridiko Aholkulariarekin bat etorriz eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko urriaren 11n egin-dako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

1. *artikulua*.– Helburua.

Dekretu honen helburua hau da: tatuajeak, mikropigmentazioak, gorputz zulatzak («piercing») edo larrazala zein muki-mintzak zulatzea edo zeharkatzea dakarten beste teknika batzuk gauzatzen dituzten establezimenduei aplikatuko zaizkien baldintza teknikoak eta arau higieniko-sanitarioak ezartzea, bai eta praktika hauek gauzatzen dituzten pertsonen prestakuntza-baldintzak eta kontuan hartu beharko dituzten izaera higieniko- sanitarioko neurriak ere. Horrekin guztiorrekin erabiltzaileen eta aipatu teknikak aplikatzen dituztenen osasuna babestu nahi da.

2. *artikulua*.– Eremua.

1.– Dekretu hau Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturiko izaera ez sanitarioko establezimenduei aplikatuko zaie, alegia, tatuajeak, mikropigmentazioa, gorputz zulatzea («piercing») eta antzeko beste teknika batzuk gauzatzen dituztenei.

2.– Salbuetsia geratzen da belarri-gingila zulatzea, baldin eta, teknika esterilak eta erabilpen bakarreko tresneria erabiliz, profesional sanitarioek egiten badute.

3. *artikulua*.– Debekuak.

1.– Espresuki debekaturik geratzen da dekretu honetan aipatzen diren teknikak praktikatzea azoka txiki, postu ibiltari eta horrelakoetan.

2.– Dekretu honek ez ditu babesten izaera kaltegarri edo mutilatzailea daukaten praktikak, eta bereziki prozedura orbaintzaileak.

3.– Era berean, dekretu honek ez ditu babesten profesional sanitario baten eskuartzea derrigorrezkoa duten prozedurak.

Por último, el Decreto atribuye el ejercicio de la actividad de control e inspección de estas actividades a los Ayuntamientos, de conformidad con los ámbitos de intervención sanitaria que les confiere la Ley 14/1986, General de Sanidad y la Ley 8/1997, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en relación con la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Por todo lo expuesto, a propuesta del Consejero de Sanidad, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 11 de octubre de 2005,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.– Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto establecer los requisitos técnicos y las normas higiénico-sanitarias aplicables a los establecimientos donde se realizan prácticas de tatuaje, micropigmentación, perforación corporal («piercing») u otras técnicas que impliquen penetrar o atravesar la piel y/o mucosas, así como los requisitos de formación y las medidas higiénico-sanitarias que deberá observar el personal que las realice, todo ello con el fin de proteger la salud tanto de los usuarios como de los aplicadores de dichas técnicas.

Artículo 2.– Ámbito.

1.– El presente Decreto será de aplicación a aquellos establecimientos de carácter no sanitario ubicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, en los que se realicen prácticas de tatuaje, micropigmentación, perforación corporal («piercing») u otras técnicas similares.

2.– Se exceptúa la perforación del lóbulo de la oreja, siempre que se realice por profesionales sanitarios con técnicas estériles e instrumental de un solo uso.

Artículo 3.– Prohibiciones.

1.– Queda expresamente prohibida la práctica de las técnicas a que se refiere el presente Decreto en mercadillos, puestos ambulantes y similares.

2.– No quedan amparadas por el presente Decreto las prácticas que tengan un carácter lesivo o mutilante del cuerpo humano, y expresamente los procedimientos cicatriciales.

3.– Así mismo, el presente Decreto no ampara los procedimientos que requieran la intervención preceptiva de un profesional sanitario.

4. artikulua.– Definizioak.

Dekretu honen ondorioetarako, honako hau da ondoko hitzonen esanahia:

1.– Tatuajea: larruazalaren azpian pigmentuak eta koloratzaileak sartuz gorputza dekoratzeko prozedura. Larruazala zulatu egiten da ezten edo puntzoi batekin.

2.– Mikropigmentazioa edo dermopigmentazioa: larruazalaren azpian pigmentuak eta koloratzaileak sartzea baina gorputzeko gune jakin batzuetan, adibidez, ezpainenetan, bekainenetan edo begien ingurunean; hainbat hilabete edo urtetako iraupena izaten du.

3.– Gorputz zulatzea («piercing»): gorputza eraztun, uztaiz edo beste apaingarri batzuekin dekoratzeko prozedura; apaingarriok larruazala, muki-mintzak edo beste ehunen batzuk zulatuz eta zeharkatuz finkatzen dira gorputzean.

4.– Aplikatzaileak: larruazala, muki-mintzak edo gorputzeko beste ehunen batzuk zulatzea dakarten jarduerak gauzatzen dituzten pertsonak.

5.– Lan arloa: establezimendu batean tatuajeak, mikropigmentazioa, gorputz zulatzea («piercing») eta antzeko beste teknika batzuk gauzatzen diren tokia.

6.– Esterilizazioa: edozein motatako bizitza mikrobiarra, esporak barne, suntsitzean edo ezabatzean datzan prozesua. Sistema baskularrekin eta organismoko guneez esterilekin ukipenean sartzen diren material guztientzat ezinbestekoa da garbiketa prozesu bat eta jarraian esterilizazioa egitea.

7.– Desinfekzioa: mikroorganismo guztiak, esporak izan ezik, ezabatzeko prozesua. Beharrezkoa da aurretiaz garbiketa prozesu bat egitea.

II. KAPITULUA

INSTALAZIOAK, EKIPAMENDUAK, MATERIALAK

5. artikulua.– Instalazioak eta ekipamenduak.

1.– Dekretu honek aipatzen dituen praktikak gauzatzen dituzten establezimenduek espazio jakin bat eduki behar dute, gutxienez honako gune hauek bereiztuko dituenak:

a) Harrera gunea: bezeroei harrera egin eta informazioa ematen zaien lekua.

b) Laneko gunea: gainerako gunetatik erabat berezia egon behar du, ekipamendua edukitzeko neurri egokiak eduki behar ditu eta erabiltzailearen intimitatea eta pribatutasuna bermatu behar ditu. Honako ezaugarri hauek eduki behar ditu:

– Bai laneko tokien gainazala eta bai zorua, hormak eta altzariak material ez porotsuzkoak izan behar dute,

Artículo 4.– Definiciones.

A los efectos de este Decreto se entienden por:

1.– Tatuaje: procedimiento de decoración del cuerpo mediante la introducción bajo la piel de pigmentos y colorantes. La piel se perfora con un instrumento punzante.

2.– Micropigmentación o dermopigmentación: introducción bajo la piel, en zonas concretas como labios, cejas o contorno de los ojos de pigmentos y colorantes con una duración temporal de varios meses o años.

3.– Perforación corporal («piercing»): procedimiento de decoración del cuerpo con anillos, aros u otros ornamentos, que se sujetan al cuerpo atravesando la piel, mucosas u otros tejidos corporales.

4.– Aplicadores: personal que realiza actividades que implican la perforación de la piel, las mucosas u otros tejidos corporales.

5.– Área de trabajo: dependencia del establecimiento donde se realizan prácticas de tatuaje, micropigmentación, perforación corporal («piercing») u otras similares.

6.– Esterilización: proceso que consiste en la destrucción o eliminación de cualquier tipo de vida microbiana, incluidas las esporas. Todos los materiales que entran en contacto con el sistema vascular y zonas estériles del organismo requieren un proceso de limpieza, seguido de esterilización.

7.– Desinfección: proceso destinado a conseguir la eliminación de microorganismos, con excepción de las esporas. Requiere un proceso de limpieza previo.

CAPÍTULO II

INSTALACIONES, EQUIPAMIENTOS, MATERIALES

Artículo 5.– Instalaciones y equipamientos.

1.– Los establecimientos en los que se realicen las prácticas a que se refiere el presente Decreto deberán disponer de una zona en la que se diferenciarán, al menos, las siguientes áreas:

a) Área de recepción: donde se atiende a los clientes y se les da información.

b) Área de trabajo: debe estar completamente separada del resto de las áreas, disponer de dimensiones adecuadas para la disposición del equipamiento y garantizar la intimidad y privacidad del usuario. Debe tener las siguientes características:

– Tanto la superficie de trabajo como las paredes, el suelo y el mobiliario deben ser de materiales no poro-

leunak, iragazgaitzak eta erresistenteak agente kimikoek ekintzaren aurrean, garbitasuna eta desinfekzioa errazteko.

– Instalazioetako metalezko elementuek material herdoilgaitzezkoak izan behar dute.

– Argitasun eta aireztapen ona eduki behar du.

– Altzariak era egokian ezarriak egon behar dute, pertsona aplikatzailea behar duen tresneriara azkar eta eragozpenik gabe iristeko, ahalik eta desplazamendu txikienak eginez.

– Eskuz eragiten ez zaion konketa bat eduki behar du eskuak garbitzeko, honako hauez hornitua: ur korrontea, xaboi dispentsagailua, esku-lehorgailu elektrikoa edo erabilpen bakarrekoko xukaderak.

c) Gune bereizi bat garbiketa lanak, desinfekzioa eta esterilizazioa egiteko eta material desinfektatua eta esterilizatua gordetzeko. Espazio hau:

– Ongi bereizia egongo da lan gunetik eta publikoak ez du bertarako sarbiderik eduki behar.

– Gune zikinek eta garbiek ongi bereiziak egon behar dute kutsapen gurutzatua saihesteko.

– Eskuz eragiten ez zaion konketa bat eduki behar du eskuak garbitzeko, honako hauez hornitua: ur korrontea, xaboi dispentsagailua, esku-lehorgailu elektrikoa edo erabilpen bakarrekoko xukaderak.

– Autoklave bat edukiko da, I. eranskinean ezartzen denaren arabera, aurretiaz garbitu eta paketatuta den materiala esterilizatzeko.

– Produktuak, materialak eta laneko tresneria leku garbi eta lehor batean gorde behar dira, berauek eskatzen dituzten argi, tenperatura eta higie-ne baldintzak betez.

d) Eskuak garbitzeko konketa bat: ur korrontea, xaboi dispentsagailua eta lehorgailu elektrikoa edo erabilpen bakarrekoko xukaderak.

2.– Dekretu honek aipatzen dituen praktikak gauzatzen dituzten establezimenduek botikin bat eduki behar dute II. eranskinean zehazten diren materialak hornitua, erabiltzaileei lehenengo sorospen asistentzia bermatzeko istripu arinak gertatzen direnerako; horrez gain, larrialditako zerbitzuen telefono zenbakiak eduki behar dituzte.

6. artikulua.— Tresnak eta materialak.

1.– Dekretu honek aipatzen dituen praktikak gauzatzen dituzten establezimenduetan erabiltzen diren tresna eta material guztiek, alegia, larruazala, mukimintzak edo beste ehunen batzuk zulatzen zein zeharkatzen dituztenek —adibidez, orratzak, labanak, xiringak eta antzekoak— esterilak izan behar dute eta erabilpen bakarrekokoak; beraz, ontziratuak eta zigilatua-

kos, lisos, impermeables y resistentes a la acción de agentes químicos, para facilitar la limpieza y desinfección.

– Los elementos metálicos de las instalaciones deben ser de materiales resistentes a la oxidación.

– Debe disponer de buena iluminación y ventilación.

– El mobiliario debe estar dispuesto de modo que el acceso del personal aplicador a los utensilios que precise sea fácil y conlleve los mínimos desplazamientos posibles.

– Debe disponer de un lavamanos de accionamiento no manual, equipado con agua corriente, dispensador de jabón y secamanos eléctrico o toallas de un solo uso.

c) Área para las actividades de limpieza, desinfección, esterilización y almacenamiento del material desinfectado y estéril. Este espacio:

– Debe estar suficientemente aislado del área de trabajo, sin acceso al público.

– Las zonas sucias y limpias deben estar bien diferenciadas de manera que se evite la contaminación cruzada.

– Debe disponer de un lavabo de accionamiento no manual, equipado con agua corriente, dispensador de jabón y secamanos eléctrico o toallas de un solo uso.

– Se dispondrá de un autoclave, según lo establecido en el anexo I, para la esterilización del material limpiado y empaquetado previamente.

– El almacenaje de los productos, materiales e instrumentos de trabajo se debe realizar en un lugar, limpio y seco, de acuerdo con los requerimientos de luz, temperatura e higiene de los mismos.

d) Aseo con lavamanos equipado con agua corriente, dispensador de jabón y secamanos eléctrico o toallas de un solo uso.

2.– Los establecimientos donde se realicen las prácticas a que se refiere el presente Decreto deben disponer de un botiquín con los materiales señalados en el anexo II, para garantizar la asistencia de primeros auxilios a los usuarios en caso de accidente menor, así como de los números de teléfono de los servicios de urgencia.

Artículo 6.— Utensilios y materiales.

1.– Todos los utensilios y materiales que se utilicen en las prácticas a que se refiere el presente Decreto y que penetren o atraviesen la piel, las mucosas u otros tejidos, como agujas, cuchillas, jeringuillas y similares, deberán ser estériles y de un solo uso, debiendo estar envasados y sellados para garantizar su esterilidad, y serán desprecintados en presencia del usuario. Además de-

egon behar dute beren esteriltasuna bermatzeko, eta erabiltzaile edo bezeroaren aurrean kenduko zaie zigilua. Horrez gain, aplikatzea dagokien guztian, produktu sanitarioen arloan indarrean dagoen araudian xedatzen dena bete beharko dute, bai eta aplikatu dakizkizkeen gainerako lege guztiak ere.

2.– Debekaturik dago «odoljarioak ixteko lapitzak» deritzenak erabiltzea.

3.– Pertsona aplikatzaileek betiere eskuzorro esterilak erabiliko dituzte. Halaber, beste hainbat metodo babesgarri erabiliko dituzte (mozorroak, lanerako berriazko arropak, etab.), gauzatzerakoan praktika edukiz lezakeen arriskuaren arabera.

4.– «Piercing» prozeduretan, apaingarritarako erabiliko diren objektuek erreakzio alergikoen arriskua saihestuko duten materialezkoak izan behar dute; horrez gain, biobateragarriak izan behar dute eta larruazalaren azpiko inplanteak egiteko egokitzat jotzen direnak indarrean dagoen araudian. Gainera, erabiltzeko momentura arte esteril eta banaka ontziratuta egon behar dute.

5.– Erabiltzen diren tinta eta pigmentuek, produktu kosmetikoen arloan indarrean dagoen araudian xedatzen dena bete beharko dute, eta dagokien erregistro sanitarioa eduki. Tintak aplikazio bakar baterako ontzietan erosi beharko dira eta bota egingo da erabilpen bakoitzaren ondoren sobratzen dena. Kremak eta gelak aplikatzeko ihiztailuak ere erabilpen bakarrekoak izango dira.

6.– Erabiltzen diren tresnen diseinuak eragotzi egin behar du horien barrura fluidorik sartzea; tresnen gainazalak, bestalde, ez du inolako zailtasunik eduki behar desinfektatzeko zein esterilizatzeko.

III. KAPITULUA

HIGIENA ETA HONDAKINEN GESTIOA

7. artikulua.– Higienea.

1.– Laneko gunea eta garbiketara, desinfekzio, esterilizazio eta biltegi gunea urez eta elementu detergentez garbitu behar dira premia dagoen guztietan; gutxienez, egunero, publikoarentzat zabalik egoteko ordua amaitzean. Aldizka, garbiketara lanetan elementu desinfektatzaileak erabili beharko dira.

2.– Erabiltzen den ohatila bezeroaren gorputzarekiko ukipen zuzena saihestuko duen material batez estaliko da; estalki hori praktika bakoitzaren ondoren aldatuko da.

3.– Debekaturik dago:

- a) establezimenduan animaliak sartzea eta/edo egoitea.
- b) laneko gunean erretzea eta jatea.

berán cumplir, en lo que sea de aplicación, lo dispuesto en la normativa vigente en materia de productos sanitarios, así como cuanta otra legislación les sea aplicable.

2.– No se pueden utilizar los denominados «lápices cortasangre».

3.– El personal aplicador siempre utilizará guantes estériles. Asimismo, utilizará otros métodos de protección (mascarilla, ropa específica de trabajo, etc.) dependiendo del riesgo que implique la práctica a realizar.

4.– En los procedimientos de «piercing», los materiales utilizados como adornos deberán ser de una calidad que evite el riesgo de reacciones alérgicas, habrán de ser biocompatibles y de materiales reconocidos como aptos para implantes subcutáneos por la normativa vigente. Además deberán permanecer estériles y envasados individualmente hasta su utilización.

5.– Las tintas y pigmentos utilizados deberán cumplir lo dispuesto en la normativa vigente en materia de productos cosméticos y disponer del correspondiente registro sanitario. Las tintas se adquirirán en presentaciones para aplicación única y se desechará la tinta sobrante después de cada sesión. Los hisopos para aplicar las cremas y geles también serán de un solo uso.

6.– El instrumental empleado deberá estar diseñado de manera que se impida la entrada de fluidos en el interior de los mismos, con superficies que permitan la esterilización o la desinfección.

CAPÍTULO III

HIGIENE Y GESTIÓN DE RESIDUOS

Artículo 7.– Higiene.

1.– El área de trabajo y el área destinada a las actividades de limpieza, desinfección, esterilización y almacenamiento deberán limpiarse con agua y elementos detergentes siempre que sea necesario y, como mínimo, todos los días al finalizar el horario de apertura al público. Periódicamente, se utilizarán en las operaciones de limpieza elementos desinfectantes.

2.– La camilla utilizada se cubrirá con un material que evite el contacto directo con el cuerpo del usuario, que se cambiará tras cada práctica.

3.– Queda prohibido:

- a) la entrada y/o permanencia de animales en el establecimiento.
- b) fumar y comer en el área de trabajo.

c) laneko gunean aktibitatearekin zerikusirik ez duten pertsonak sartzea.

4.– Aplikatzaileak:

a) eskuak xaboi-urez garbitu behar dituzte praktika bakoitzaren aurretik eta ondoren, bai eta etenaldiren bat gertatuz gero praktikari berrekin behar diotenean ere.

b) eskuzorroak erabili behar dituzte odolarekin, likido organikoekin, mukosekin edo ukitu gabea ez den larruazalarekin manipulatzeko duten guztietan.

c) laneko arropa espezifikoak erabili behar dituzte beren lana garatzeko; arropak behar den beste garbitu beharko dira, bereziki gorputz fluido zikintzen diren aldi guztietan.

5.– Esterilizatu beharrik ez dagoen tresneria I. eranskinen ezartzen denaren arabera garbitu eta desinfektatu behar da.

6.– Esterilizazio eta desinfekzio metodoetan eraginkortasunik handiena lortzen dela bermatzeko, ezinbestekoa da alde aurretik garbitzea (esku zain automatikoki), betiere fabrikatzaileak ematen dituen erabilpen-argibideak kontuan edukiz.

7.– Tresnaren bat lurrera eroriz gero edo aurreikusirik esterilizazioa edo desinfekzioa galtzea dakarren edozer gertatuz gero, berriz ere esterilizatu edo desinfektatu beharko da —dagokiona dagokiola—, berrir erabiltzen hasi aurretik.

8.– Edozein zulutzeri ekin aurretik, larruazala desinfektatu beharko da.

8. artikulua.– Hondakinen gestioa.

1.– Zentroek toki egoki bat eduki behar dute hondakin ebakitzailerik edo ziztatzaileen edukiontzia kokatzeko, erabiltzaileek berauetara sarbiderik edukiko ez duten guneren batean.

2.– Hondakinak edukiontzietan metaturik edukitzea gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da.

3.– Hondakin ebakitzailerik edo ziztatzaileak erabilpen bakarreko ontzi zurrun, zulakaitz eta iragazgaitzetan jasotzeko beharko dira.

4.– Ontziak «bio-arriskua» adierazten duen anagrama batekin errotulatu beharko dira eta hondakin biopoluituen nazioarteko piktograma eduki beharko dute, hondo hori-laranja gainean beltzez marraztua. Hondakinen Europar Katalogoaren (H.E.K.) kodearekin, hondakinen identifikazio kodearekin eta 833/1988 Errege Dekretuaren 13. eta 14. artikuluetan adierazten diren gainerako datu guztiekin etiketatu beharko dira.

5.– Hondakin arriskutsu ebakitzailerik edo ziztatzaile biopoluituen kudeatzaile batek kudeatuko ditu hondakinak; kudeatzaile horrek hondakinak jasotzeko baimendua egon beharko du.

c) la entrada al área de trabajo de personas ajenas a la actividad.

4.– Los aplicadores:

a) deberán lavarse las manos con agua y jabón, antes y después de cada práctica, así como cada vez que se reanude la práctica en el caso de que se produzcan interrupciones.

b) deberán utilizar guantes siempre que se manipule sangre, líquidos orgánicos, mucosas o piel no intacta.

c) deberán utilizar ropa de trabajo específica para desarrollar el trabajo y proceder a su limpieza siempre que fuere necesario y siempre que se manche de fluidos corporales.

5.– El instrumental que no requiera esterilización deberá ser, limpiado y desinfectado según lo establecido en el anexo I.

6.– Para garantizar la máxima efectividad de los métodos de esterilización y desinfección es imprescindible una limpieza previa (manual o automática), siempre teniendo en cuenta las condiciones de uso recomendadas por el fabricante.

7.– En caso de que el instrumental caiga al suelo o ante cualquier otra circunstancia que suponga una pérdida de las condiciones previas de esterilización o desinfección deberá esterilizarse o desinfectarse, según proceda, antes de usarlo nuevamente.

8.– Antes de cualquier perforación se procederá a la desinfección de la piel.

Artículo 8.– Gestión de residuos.

1.– Los centros deberán disponer de un lugar de almacenamiento para los contenedores de residuos cortantes y punzantes adecuado, que impida el acceso de los usuarios al mismo.

2.– El periodo máximo de almacenamiento final de los residuos será de tres meses.

3.– Los residuos cortantes y punzantes se depositarán en envases de un solo uso, rígidos, impermeables e impermeables.

4.– Los recipientes se rotularán con un anagrama que indique «bio-riesgo» y contarán con el pictograma internacional de los residuos biocontaminados, dibujado en negro sobre fondo amarillo-naranja. Se etiquetarán con el código del Catálogo Europeo de Residuos (código C.E.R.), el código de identificación del residuo y demás datos contenidos en los artículos 13 y 14 del Real Decreto 833/1988.

5.– Su gestión se realizará mediante su entrega a un gestor de residuos peligrosos cortantes y punzantes biocontaminados, autorizado para recogida de residuos.

6.– Zentro hauen titularren betebeharrak izango dira, halaber:

- a) Hondakinen onarpen agiriaren jabe izatea.
- b) Kudeatzaile baimenduari entregatu aurretik, kontrol eta segimenduko agiriak betetzea.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Ingurumen Erakundearen dagoen produktore txikiaren erregistroan inskribatzea.

IV. KAPITULUA PERTSONALARI, BERONEN PRESTAKUNTZARI ETA BETEBEHARREI BURUZKOA

9. artikulua.– Erantzukizuna.

Tatuajeak, mikropigmentazioak eta «piercing» praktikak egiten dituzten establezimenduetako titularrek dute dekretu hau eta aplikatzeak diren gainerako arau guztiak konplitzeko erantzukizuna.

10. artikulua.– Betebehar sanitarioak.

Aplikatzaileek honako neurri hauek hartu behar dituzte:

- 1.– B hepatitisaren eta tetanosaren aurkako txertoak.
- 2.– Larruzaleko lesioak dituztenean, material iragazgaitzez estali behar dituzte. Hori egitea ezinezko bada, jarduera hau gauzatzeari utzi beharko diote sendatu arte.
- 3.– Ezingo dute ez jan, ez edan eta ez erre praktikak egiten diharduten bitartean.
- 4.– Lanean ari diren bitartean, beti eta edonork ikus teko moduko lekuren batean eraman behar dute txartel identifikatzailea. Izan ere, txartel horrek identifikatuko ditu darabilten teknikaren aplikatzaile gisa.

11. artikulua.– Prestakuntza.

1.– Aplikatzaileek behar besteko ezagutza maila eduki behar dute dekretu honetan arautzen diren praktikekin lotuta dauden osasun-arriskuei buruz ohartarazteko. Ondorio horietarako, ezagutza maila egokia dutela onartzen zaie aplikatzaileei baldin eta titulazio edo kualifikazio profesional hauetakoren baten jabe badira:

- a) Medikuntza eta Kirurgiako Lizentziatura.
 - b) Farmaziako Lizentziatura.
 - c) Erizaintzako Diplomatura.
 - d) Estetikako Goi Mailako Teknikaria.
 - e) Makillaje Integraleko Kualifikazio Profesionala.
- 2.– Osasun sailburuaren Aginduz, luzatu ahal izango da goiko zerrenda, dekretu honen III. eranskinean

6.– Serán obligaciones de los titulares de estos centros, además:

- a) Estar en posesión del documento de aceptación de residuos.
- b) Cumplimentar los documentos de control y seguimiento con carácter previo a su entrega a gestor autorizado.
- c) Inscripción en el registro de pequeño productor existente en el Órgano Ambiental de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

CAPÍTULO IV DEL PERSONAL, SU FORMACIÓN Y OBLIGACIONES

Artículo 9.– Responsabilidad.

Los titulares de los establecimientos donde se realizan tatuajes, micropigmentaciones y «piercing» son los responsables del cumplimiento de este Decreto y restante normativa de aplicación.

Artículo 10.– Obligaciones sanitarias.

Los aplicadores adoptarán las siguientes medidas:

- 1.– Vacunación contra la hepatitis B y tétanos.
- 2.– Cuando presenten lesiones de la piel deberán cubrirse las mismas con material impermeable. Si ello no fuera posible, se abstendrán de realizar esta actividad hasta su curación.
- 3.– No podrán comer, fumar o beber durante el tiempo de la realización de las prácticas.
- 4.– Durante su trabajo, deberán llevar colocada siempre y en lugar visible al público la tarjeta identificativa que acredite su identidad como aplicador de la técnica correspondiente.

Artículo 11.– Formación.

1.– Los aplicadores deben disponer de un nivel de conocimientos suficientes para realizar una prevención de los riesgos para la salud asociados a la realización de las actividades reguladas en el presente Decreto. A tales efectos, se reconoce la adquisición de tal nivel de conocimientos a los aplicadores que estén en posesión de alguna de las titulaciones o cualificaciones profesionales siguientes:

- a) Licenciatura en Medicina y Cirugía.
 - b) Licenciatura en Farmacia.
 - c) Diplomatura en Enfermería.
 - d) Técnico superior en Estética.
 - e) Cualificación Profesional de Maquillaje Integral.
- 2.– Mediante Orden de Consejero de Sanidad podrá ampliarse la relación anterior a otros títulos o cualifi-

jasotako arloei buruzko ezagutzak lortu izana kreditatzen duten beste titulazio edo kualifikazio profesional batzuk ere barne hartuz.

3.– Exijitzen diren titulazio edo kualifikazio profesionalak ez dauzkaten aplikatzaileek gutxienez 40 orduko prestakuntza ikastaro bat gainditu dutela kreditatu beharko dute; ikastaroaren programa dekretu honen III. eranskinean jasotako edukiei lotu beharko zaie.

Ikastaroaren kreditazioak barne hartuko du azken ebaluazio bat, bai teorikoa eta bai praktikoa, gainditu izana.

12. artikulua.– Prestakuntza ikastaroak egitea.

